

**KONTSULTA PUBLIKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEARI BURUZKO LEGEAREN
AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKOA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen Aurreproiektua egiteko prozedurari ekiteko asmoa dauka Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren arabera, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin baino lehen, galdeketa publiko bat egin beharra dago, administrazio eskudunaren web- atariaren bidez, bihar-etziko arauaren eragina gehien sumatuko duten norbanako eta antolakunde esanguratsuenen iritzia biltzeko gai hauen gainean:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Zein beharrezkoa eta egokia den araua onartzea.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ea beste konponbiderik badagoen arauketa erabiliz edo beste nolabait.

Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartutako erabakiaren bidez, arau mailako xedapen orokorrak egiteko prozeduraren aplikazioari buruzko jarraibideak onartu ziren, eta jarraibide horietan ezarri zen, halaber, aurretiko izapidea xedapen orokorra sustatu duen organoak edo zuzendaritza-zentroak egin ahalko duela, iragarki bat jarritz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan.

Aurrekoa betetze aldera, eta aurreproiektua egin aurretik, honen bidez herritarrak gonbidatzen ditugu beren iritzia azaltzera honi buruz: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko den iragarkiaren eranskinean jasotako informazioari buruz.

Vitoria-Gasteiz, 2018koaren(a)

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria.

Sin.:

AITOR ZULUETA TELLERIA.

(Elektronikoki sinatuta)



KONTSULTA PUBLIKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMEN-ADMINISTRAZIOAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKOA

EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Natura Ondarearen Kontserbazioari buruzko arau berri bat egin nahi dugu. Arau berrian, ekainaren 30eko 16/1994 Legea ordezkatzear gain (hura bategin zen apirilaren 15eko 172014 Legegintza Dekretuaren bidez), autonomia-erkidegoan natura babesteko, kontserbatzeko eta kudeatzeko politika berri baten oinarriak ezarriko dira, gai horri buruzkoari dagokionez dauden erronka aldakorrei eta gizartearen eskaerei aurre egiteko.
ZEIN BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN ARAUA ONARTZEA	Jada 34 urte igaro dira Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legea onartu zenetik, eta denboraren zehar zenbait erreforma egin zaion arren, aplikatzeko arazoak ditu legeak, batez ere ingurumenari buruzko lege-corpus zabala dagoelako, natura-ondarearen babesaren eta kontserbazioaren arloan, Europar Batasunetik bultzatu eta Estatuaren oinarritzko arauetara eramana.
ARAUAREN HELBURUAK	- Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarritzko bizi-sistemen jarraipenari eustea, ekosistemen zerbitzuak babestuz. - Dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzea eta lehengoratztea, bai eta natura-ondarearen gaitasun produktiboa ere. - Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, singularitasuna eta edertasuna ere. - Dibertsitate genetikoaren eta basafloa- eta basafauna-populazioen kontserbazio-egoera ona bermatzea. - Natura-ondarearen ondasunen eta baliabideen erabilpen jasangarria bermatzea, bereziki basoko espezieena eta ekosistemen, bideodibertsitatearen galera netoa saihestuz.
EA KONPONBIDERIK BADAGOEN ARAUKETA ERABILIZ EDO BESTE NOLABAIT	Aurreko paragrafoetan azaldu ditugun arrazoiak direla-eta, gure ustez behar-beharrezkoa da gai hau berriaz arautzeko neurriren bat hartzea, eta ez dago beste aukerarik gainera, araurik egon ere ez baitago.

